

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2014ko 4. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2014ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak bere hazkunde erritmoa biziagotu zuen, urte arteko aldakuntza tasa %1,9an kokatu arte, aurreko datua puntu erdi batean gaindituz. Horren ondorioz, gero eta hazkunde tasa handiagoak jaso dituzten lau hiruhileko kateatu ditu, lehen hiruhilekoko %0,5 hartatik orain aipatu berri den laugarren hiruhilekoko tasa horretara. Ingurunearekin alderatuta, EAEko barne produktu gordinak alde handiz gainditu ditu Euroguneko (%0,9) eta Europar Batasuneko (%1,3) emaitzak, eta oso hurbil dago espainiar ekonomiak epealdi berean izan zuen erritmotik (%2,0). Urte osoko batez bestekoan, EAEko ekonomia %1,2 hazi zen 2014an, aurreko urteko jaitsiera bizia (%-1,7) atzean utziz eta Europako erreferentzia nagusietatik aldentzen zuen diferentziala murriztuz.

EAEko ekonomiak 2014an zehar bideratu duen suspertze prozesua, ia osorik, barne eskariaren sendotasunean oinarritu da, kanpo saldoa emeki-emeki indarra galtzen ari zen bitartean, hazkundeari hamarrenen bat kendu arte. Hain zuzen ere, barne eskariak balio positiboak eta gero eta handiagoak lortu zituen urtean zehar, iazko laugarren hiruhilekoan %2,0ko tasa eskuratu arte. Eskari horren bi osagaiak beren gehikuntza erritmoa hobetu zuten laugarren hiruhilekoan, baina azken kontsumoaren goranzko bilakaera bereziki bizia izan zen, urte amaieran %2,4ko aldakuntza tasa izan zuelako. Kapital eraketa gordinak, berriz, hazkunde apalagoa izan zuen (%0,6), ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa (%4,0) ekonomiaren suspertze prozesuaren zutabeetako bat den arren. Hala ere, gainontzeko inbertsioak (%-0,7) agregatuaren emaitza galgatu zuen.

Azken kontsumoaren barnean, familien kontsumoaren portaerak oso garrantzia esanguratsua dauka, hiru urtez jarraian etengabeko jaitsierak pairatu ondoren, balio positiboak sendo berreskuratu dituelako. Zehazkiago adierazita, aldagai hori %2,6 hazi zen 2014ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan. 2008ko hasierara joan behar da tamaina horretako hazkunde bat aurkitzeko. Portaera aldaketa hori azaltzen duten arrazoiak asko dira eta haien artean hauek aipatu behar dira: enpleguaren sorrera, kontsumoko prezioen jaitsiera, soldata errealen gehikuntza txiki bat, ikuspegi baikorrago bat etorkizunaz, bankuen kreditu bat lortzeko erraztasun handiagoa eta finantza aberastasuna igo izana.

Aitzitik, kanpo saldoak EAEko BPGaren gehikuntzari egin zion ekarpena gero eta txikiagoa izan zen 2014an zehar, eta laugarren hiruhilekoan negatiboa izan zen, baina txikia. Alde batetik, ingurunearen hobekuntzak eta euroaren balio galerak bultzada eman zieten EAEko esportazioei, batez ere urtearen bigarren erdian, azken hiruhilekoan %4,7 erreala hazi arte. Beste aldetik, barne eskariaren sendotasunak autonomia erkidegotik kanpo erositako ondasunak eta zerbitzuak igoarazi zituen. Horren ondorioz, inportazioek bilakaera suspertu zuten, horiek ere

%4,7 erreal hazi arte. Prezioak beherantz doazenez, esportazioen eta inportazioen aldakuntza tasa nominalak (hurrenez hurren, %3,9 eta %4,8) ez ziren termino errealetan aipatu direnetatik asko aldendu.

Sektoreen ikuspegi batetik, zerbitzuek oso protagonismo esanguratsua lortu zuten. Zerbitzuek oso bilakaera bizia erakutsi zuten 2014ko azken zatian, urte artekoa %2,6an kokatu arte, aurreko datua ia puntu oso batean gaindituz. Zerbitzuetako atal guztiek parte hartu zuten bizitasun handiago horretan. Esate baterako, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenak %3,0 handitu zuen balio erantsia aurreko urteko datuaren aldean. Halaber, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituenak %2,8 hazi zen. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %2,2 areagotu zuten balio erantsia. Sektorekako koiunturaren alderdi ezkorrena eraikuntzak eskaini zuen berriro, jarduera %2,0 gutxitu zuelako. Halere, jaitsiera leuntzen ari da.

Barne produktu gordinaren bilakaera onak eragina izan du lan merkatuan ere eta lanpostuen kopurua %1,0 handitu zen laugarren hiruhilekoan. Enpleguak gora egin bazuen ere, langabezia tasa ez zen aldatu eta %14,5ean jarraitu zuen, lanpostu bat modu aktibo batean bilatzera animatu diren pertsonen kopurua igo delako, ekonomiari buruzko igurikimeneak hobera egin dutelako.

Barne eskariaren suspertze sendoak ez zuen inolako tentsiorik sortu kontsumoko prezioetan. Aitzitik, beheranzko norabidea areagotu zuten eta %-0,2an kokatu ziren 2014ko azken hiruhilekoan. Are gehiago, urtarrilean %-1,0ra jaitsi zen KPIaren urte arteko tasa. Petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen merkatze biziak zenbaki horiek baldintzatu ditu, baina prozesua otsailean amaitu dela ematen du.


Datozen hiruhilekoei begira, Ogasun eta Finantza Sailaren aurreikuspenak BPGaren hazkundera %2,0aren apur bat goragoko erritmotan egonkortuko dela seinalatzen du. Hain zuzen ere, %2,3ko igoera espero da 2015erako. Hazkunde hori barne eskariaren sendotasunean oinarrituko da, kanpo saldoaren ekarpen txiki batek lagunduta. Oraindik arazoak egon daitezke eraikuntzan, baina gainontzeko sektoreek bizitasuna erakutsiko dute. Aurten enplegua %1,6 handituko da.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2014ko laugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde erritmoa egonkortzeko joera erakutsi zuen, neurri batean, petrolioaren merkatzearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, susperraldia mailakatua da eta ekonomiaren bilakaera oso ezberdina da eremu batzuetan eta besteetan. Izan ere, AEBetako eta Erresuma Batuko hazkundea sendoa izan zen berriro; Txinako bultzada ekonomikoa egonkortu zen; eta Japoniako jarduerak ezin izan zuen erritmoa berreskuratu. Zorionez, energiaren prezioen beherakadak, mundu mailan, inflazioaren gaineko presioak arindu zituen.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Txinan, agintariek higiezinaren arloa suspertzeko eta ekonomiaren hazkundera bizkortzeko ezarri zituzten neurri berriak ez ziren nahiko izan barne eskaria areagotzeko, oraindik hobetzeko zantzu garbirik ez baitu erakusten. Hala eta guztiz ere, esportazioek sendotasun handiko irudia eskaini zuten, bereziki abenduan, hilabete horretan inoizko markarik handiena lortu zutelako, guztira 228.000 milioi dolar inguruko kopurua kontabilizatu baitzuten. Horrek lagundu zuen ekonomia jarduerak %7,3an egonkor jarraitzen, bigarren hiruhilekoz jarraian. Hazkunde tasa hori analisigile nagusiek espero zutena baino hamarren bat altuagoa izan zen, baina 2010eko hasieratik bizi den moteltzeko joera arina eta kontrolatuarekin bat dator. Urteko balantzeak, berriz, %7,4ko hazkundera utzi zuen, eta azken ekitaldietan hauteman den apaltzeko joera baieztatzen du. Azkenik, inflazioaren presioak beherantz jarraitu zuen eta 2015eko urtarrilean KPI indizearen urte arteko tasa %0,9an kokatu zen, azken bost urteko tasarik txikiena delarik. Datu hori abenduan jaso zen %1,6aren oso azpitik dago eta aukera bat ematen dio Txinako banku zentralari neurri gehiago hartzeko moneta politika lasaitzeko eta ekonomiari bultzada bat emateko.

AEBetan, kontsumo pribatuak irudi sendoa erakutsi zuen eta hazkunde tasak %3,0aren inguruan ibili ziren. Orobat, kontsumo publikoak susperraldia finkatu zuen eta inbertsio pribatua egonkortu zen, talde guztietan hazkunde positiboak eskuratuz. Dena dela, dolarraren sendotasunak kalte egin zien esportazioei eta, aldiz, inportazioak areagotu. Horren ondorioz, kanpo arloak ia hiru hamarren kendu zizkion hazkunderari. Beraz, estatubatuar BPGa %2,4an kokatu zen, 2014ko hirugarren hiruhilekoan izan zuen balioaren azpian. Urteko batez bestekoa ere %2,4an finkatu zen, azken lau urteko emaitzarik onena delarik. Lan merkatuari dagokionez, 2014an zehar 2,95 milioi lanpostu sortu ziren, haietatik 252.000 abenduan. Horixe izan zen enplegu sorrerarik handiena hamabost urteko epean. Kontratazioaren gehikuntza jarraitu horrek langabezia tasa urte amaieran %5,6ra jaistea ahalbidetu zuen, nahiz eta gero, 2015eko urtarrilean, zertxobait igo zen (%5,7).

Japoniak ez zuen oraindik suspertzeko zantzu garbirik eskaini. Herrialde horretako BPGak ia puntu oso bat hobetu zuen 2014ko hirugarren hiruhilekoan pairatu zuen jaitsiera indartsuaren ondoren, baina oraindik tasa negatibotan kokatu zen (%-0,5). Barne eskariak 1,4 puntu kendu zizkion ekonomiaren jarduerari. Hiru hamarren positibo bakarrak gastu eta inbertsio publikoaren eskutik eta egoitzetakoa ez den inbertsio pribatuaren eskutik iritsi ziren. Aitzitik, kontsumo pribatuak puntu bat eta erdi kendu zion BPGari. Halere, kanpo saldoak oso portaera ona erakutsi zuen. Yenaren balio galerak esportazioak bultzatu zituen eta 1,7 puntu ekarri zioten ekonomia jarduerari, baina zenbateko hori ez zen nahiko izan barne eskariaren eta inportazioen uzkurdura konpentsatzeko. Urteko balantzean, hazkunde hutsala (%0,0) lortu zuen. Datu positiboa langabeziaren jaitsierak eman zuen, langabezia tasa abenduan biztanleria aktiboaren %3,4an kokatu baitzen.

Europar Batasunak ere joera egonkorra erakutsi zuen urte amaieran, %1,3ko hazkunde tasa bat lortuta, hots, 2014ko hirugarren hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, baina bigarren hiruhilekoko emaitza berdinduz. Bizitasun hori Alemaniaren, Erresuma Batuen eta Espainiaren bilakaera onaren ondorioa da, hiru herrialde horiek hazkundearen zutabeak izan zirelako, Baltikoko herrialde batzuek (Estonia eta Lituania) eta Errumaniak eta Eslovakiak erakutsi zuten sendotasunarekin batera, guztiek %2,5aren inguruko hazkundeak lortuta. Zehazkiago, Erresuma Batua kokatu zen hazkundearen buruan, %2,7ko gehikuntza orekatu batekin, agregatu guztiek ekarpenak egin zizkiotelako hazkunderari. Alemaniak ere bilakaera hobetu zuen, baina bertako jarduera erritmoa (%1,5) Erresuma Batukoa baino apalagoa da. Frantzia eta Italia beste muturrean kokatu ziren. Lehen herrialdean, barne kontsumoaren eta inbertsioaren narriadurak BPGaren moteltzea (%0,2) eragin zuten, eta Italiak tasa negatibotan murgilduta (%-0,5) jarraitu zuen.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak beherazko ibilbide leunak beste urrats bat eman zuen, eta 2015eko urtarrilean %9,8an kokatu zen, abenduan baino hamarren bat beherago eta 2014ko hileko berean baino zortzi hamarren beherago. Izan ere, 2014ko urtarriletik, hogeita zortzi herrialdeetako langabeen kopurua 1,82 milioi lagunetan jaitsi da. Datuak ezagutarazi dituzten herrialdeen artean, urtarrilean langabezia tasa txikienak Alemanian (%4,7), Austrian (%4,8) eta baita Luxenburgon eta Txekiar Errepublikan ere (biak %5,9 batekin) jaso ziren. 2014ko urtarrilarekin alderatuta, langabezia hogeita lau herrialdetan gutxitu da, bere horretan jarraitu zuen Belgikan eta gora egin zuen Txipren, Finlandian eta Frantzian. Ekonomiaren susperraldiaz dagoen ziurgabetasunetako bat inflazio apala da. Hain zuzen ere, energiaren merkatzeak %-0,1era bultzatu zuen KPI indizea abenduan (Eurogunearen eremuan indize hori %-0,2ra jaitsi zen) eta urtarrilean beherazko joera hori areagotu zen, Europar Batasuneko prezioak %0,5 eta Eurogunekoak %0,6 gutxitu zirenean. Otsailerako aurreratu diren lehen zenbatespenek nolabaiteko aldaketa iradokitzen dute, Euroguneko prezioen jaitsiera %0,3ra mugatu delako.

Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundeak espainiar ekonomiaren gehikuntza sendotu zuen 2014ko laugarren hiruhilekoan. Epealdi horretan, BPGa %2,0 hazi zen, 2008ko bigarren hiruhilekotik inoiz jaso den emaitzarik onena baita. Horri esker, Espainiako ekonomiak bost hiruhileko kateatu ditu datu positiboak eskuratuz. 2014. urtean, espainiar ekonomia %1,4 hazi zen. Lehen gorakada garrantzitsua da bost urtez gehikuntza esanguratsurik gabe egon ondoren. Hiruhilekoka eginiko analisisira itzulita, adar guztiek, lehen arloak izan ezik (%-3,4), hoberantz egin zuten aurreko hiruhilekoaren aldean. Eraikuntzaren bilakaera azpimarratzekoa da, hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia finkatu zuelako, %3,4 haziz, 2008ko erdialdetik jaso duen lehen datu positiboa delarik. Sektorearen hobekuntza hain bizia izan da ezen 2013ko %-8,1etik 2014ko %-1,2ra igaro baita.

Ekonomiaren hobekuntza lan merkatuan ere islatu zen. Zehatz-mehatz adierazita, 2014ko laugarren hiruhilekoan, enpleguaren hazkundea %2,4ra iritsi zen urte arteko tasan, hirugarren hiruhilekoko datua baino zazpi hamarren gorago. Beraz, lanaldi osoko 392.000 lanpostu baliokide sortu ziren azken urtebetean. Enplegua sektore guztietan, lehen arloan izan ezik, sortu zen, eta jarraipena izan du 2015eko hasieran ere. Joera positibo horrek bide eman zuen langabezia tasa %23,4ra murrizteko, azken lau urteko txikiena. Are gehiago, Euroguneak azken hamabi hilekoetan bizi duen langabeen jaitsieraren erdia eta Europar Batasunekoaren ia laurdena (%24,8) Espainiaren portaerari zor zaio. Beste aldetik, inflazioaren bilakaera erregaien prezioen etengabeko jaitsierak baldintzatu zuen, Espainiako KPI indizea %-1,3ra eraman zuelako 2015eko urtarrilean. INEren lehen zenbatespenaren arabera, otsailean beheranzko joera hori zertxobait irauli da (%-1,1), baina indizea oraindik oso urrun dago tasa positiboak berreskuratzetik.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2013	2014	2013		2014		
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	-2,4	1,8	-0,3	1,1	1,8	2,1	2,4
- Familien gastua	-2,3	2,4	-0,1	1,3	2,3	2,8	3,4
- Administrazioaren gastua	-2,9	0,1	-1,1	0,3	0,3	0,3	-0,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	-3,8	3,4	-0,5	0,8	3,9	3,9	5,1
- Aktibo finko materialak	-4,2	3,6	-0,5	0,7	4,3	3,9	5,5
- Eraikuntzan	-9,2	-1,5	-8,3	-7,4	-0,7	0,1	2,4
- Ekipamendurako ondasunetan	5,6	12,2	14,7	15,8	12,9	10,2	10,3
- Aktibo finko immaterialak	-1,3	2,5	-0,3	1,8	1,7	3,4	3,1
Nazio eskaria (*)	-2,7	2,2	-0,5	1,2	2,3	2,6	2,7
Esportazioak	4,3	4,2	5,1	6,4	1,0	4,5	4,7
Inportazioak	-0,5	7,6	3,8	9,4	4,9	8,6	7,7
BPG (m.p.)	-1,2	1,4	0,0	0,6	1,2	1,6	2,0
Nekazaritza eta arrantza	15,6	3,3	18,4	10,3	1,6	5,3	-3,4
Industria	-1,8	1,5	-0,5	0,5	1,9	1,5	2,1
Eraikuntza	-8,1	-1,2	-6,0	-6,2	-1,7	0,0	3,4
Zerbitzuak	-1,0	1,6	0,0	0,9	1,4	1,7	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,5	0,6	-0,6	0,0	0,5	1,1	1,0
GOGORATZEKOAK							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,4	-0,2	0,1	0,0	0,2	-0,3	-0,5
- Enplegua (**)	-3,3	1,2	-1,8	-0,4	1,0	1,7	2,4

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estadistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiaren bizkortzeak jarraipena izan zuen 2014ko laugarren hiruhilekoan eta BPGaren urte arteko hazkunde tasa %1,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gehiago. Horri esker, azken lau hiruhilekoetan lortu diren gehikuntza tasak gero eta handiagoak izan dira, lehen hiruhilekoko %0,5 hartatik aipatu berri den gehikuntza horretara. Urteko batez bestekoan, EAEko BPGa %1,2 hazi zen, azken bi urteetako jaitsierak atzean utziz. Datu hori oso hurbil dago Europar Batasunak epealdi berean eskuratu duen emaitzatik (%1,3) eta Eurogunerako kalkulatu den tasa (%0,9) hamarren batzuetan gainditu du. Hala ere, urtean zehar bizitasun handiagoa hauteman da EAEn, zeren eta laugarren hiruhilekoan Europar Batasuna %1,3 hazi zelako eta Eurogunea, berriz, %0,9.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2013		2014		
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	-1,7	1,2	-0,5	0,5	0,9	1,4	1,9
Nekazaritza eta arrantza	-5,5	5,5	-4,3	-1,9	6,2	13,8	4,6
Industria eta energia	-2,6	1,0	-0,1	0,8	0,9	1,4	1,0
- Manufakturen industria	-1,5	1,1	0,2	0,9	1,0	1,4	1,1
Eraikuntza	-4,7	-3,0	-1,2	-4,1	-3,6	-2,5	-2,0
Zerbitzuak	-0,9	1,5	-0,5	0,6	1,1	1,7	2,6
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,6	1,6	-0,7	0,3	1,3	1,9	3,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,1	2,2	0,9	1,7	2,0	2,4	2,8
- Gainontzeko zerbitzuak	-0,9	1,1	-1,0	0,3	0,6	1,3	2,2
Balio erantsi gordina	-1,6	1,1	-0,5	0,3	0,8	1,5	1,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,7	1,7	-1,1	1,9	2,2	0,8	1,9

Iturria: Eustat.

Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, 2014ko azken laurdenean EAEko ekonomiaren sektore nagusien hazkunde erritmoak bata bestetik aldendu ziren. Alde batetik, industriak bere gehikuntza erritmoa moteldu zuen eta, beste aldetik, zerbitzuek biziki areagotu zuten beren hedaldia. Zehazkiago adierazita, industriaren balio erantsia %1,0 handitu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Industriaren apaltze hori begi bistakoa

zen sektorearen ekoizpenak hilekoka izan zuen bilakaeran, azken hilekoetan gehikuntza tasa nabarmenak izan zituelako, baina udako datuetan hauteman zen intentsitatera iritsi gabe. Zorionez, 2015eko urtarrileko datuak, ezagutu den azkena baita, aurtengo hazkundea biiziagoa dela iradokitzen du.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014			2015	
			II	III	IV	Urtarrila	Otsaila
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-3,2	1,3	1,4	3,1	1,6	3,0	---
Industria giroaren indizea	-21,2	-12,6	-13,0	-9,6	-10,4	-9,1	-4,7
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	71,7	76,1	76,6	75,6	76,9	---	78,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-2,2	-2,4	-2,1	-2,0	-1,9	-1,3
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-23,7	-3,5	-1,3	-4,1	-2,0	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	-12,0	2,0	28,7	145,9	-55,8	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-12,4	8,1	27,4	19,8	35,0	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-3,2	-3,4	-1,9	-1,5	-0,7	-0,4
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	-9,1	5,3	8,2	8,5	4,4	-0,2	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,1	4,0	8,8	4,8	8,6	10,8	---
Hoteletako okupazioa	44,3	46,4	47,8	64,1	41,7	27,8	---
Negozio zifren indizea	-3,6	4,0	3,4	3,0	5,1	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-5,0	1,7	1,6	2,3	3,7	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,0	1,4	1,2	1,6	2,2	2,4	2,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren iritziek ere iragartzen zuten 2014ko laugarren hiruhilekoan emaitza ez zela horren ona izango. Esate baterako, industria giroaren indizeak ia puntu oso bat egin zuen okerrera epealdi horretan, pilatutako stocka handitu zelako. Hala ere, urtarrileko eta otsaileko datuetan, adierazle horrek oso bilakaera positiboa iragartzen du aurtengo lehen hiruhilekorako. Izan ere, otsaileko emaitza 2008ko abuztutik jaso den onena da. Ekoizpenaren joeraz eman dituzten erantzunak nabarmendu behar dira, gero eta positiboagoak direlako. Orobat, saldu gabeko ekoizkin amaituen stocka berriro gutxitu zen eta eskari zorroa, txiki samarra izan arren, suspertzeko urratsak eman zituen. Are gehiago, ekoizteko ahalmenaren erabilera oso

portzentaje handi batean kokatu zen, %78,9an alegia, laster ekoizteko ahalmena handitzeko inbertsioak igoko direla aurreratuz.

Balio erantsiaren terminoetan, horren ona izan ez zen datu bakarra eraikuntzak ekarri zuen, laugarren hiruhilekoan %-2,0ko urte arteko tasa izan zuelako. Dena dela, arlo horrek urtean zehar erakutsi zuen bilakaera itxaropentsua da, jaitsiera erritmoa erdira murriztu zuelako, lehen hiruhilekoko %-4,1etik aipatu den zenbakira. Orobat, sektorearen adierazle aurreratuek pentsarazten dute datozen hiruhilekoetan bilakaera hobea izango duela. Alde batetik, etxebizitzaren salmenta, hala guztizkoa nola berriena, areagotu da eta horri esker etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuen kopuruak gora egin zuen 2014an, sei urtez jarraian behera egin ondoren. Era berean, obra zibilerako lizitazio ofiziala bikoiztu zen 2013ko emaitza hutsalaren aldean. Beste aldetik, eraikinetan eginiko lizitazioa zertxobait hazi zen, baina oso urrun dago krisi aurreko datuetatik.

Gaur eguneko bizitasunik handiena zerbitzuei dagokie, balio erantsia, urte arteko tasan, %2,6 areagotu zuelako, azken sei urtekoan jaso den erritmorik gorena baita. Sektorearen bizitasuna orokorra izan zen eta berau osatzen duten hiru atalek %2,0aren gaineko aldakuntza tasak eskuratu zituzten. Esate baterako, merkataritza, ostalaritza eta garraioak %3,0 handitu zuen bere balio erantsia, aurreko datua puntu bat baino gehiago igoaraziz eta urte hasierako erritmoa (%0,3) nabarmen gaindituz. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak %2,8an kokatu zuen urte arteko tasa, kasu horretan hirugarren hiruhilekoko baino lau hamarren gorago. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %2,2 goratu zuten balio erantsia, aurreko datua ia puntu oso batean hobetuz.


Zerbitzuetako koiunturaren informazioak baieztatzen du kontu ekonomikoek sektore horretarako zenbatetsi duten bultzada. Alde batetik, Eustatek osatzen duen zerbitzuen koiuntura indizea %3,7 igo zen laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan, aurreko balioak nabarmen hobetuz. Bai merkataritzaren blokeak bai gainontzeko zerbitzuenak emaitza onak lortu zituzten. Lehen kasuan, automobilen salmenta (%7,2) gailentzen da, baina handizkako eta txikizkako merkataritzak ere datu onak izan zituzten. Gainontzeko zerbitzuetatik, garraioaren (%6,8) eta jarduera profesionalen (%4,8) bizitasuna azpimarratu behar da. Orobat, zerbitzuen negozio zifra, INEk sektore horretarako argitaratzen duen erreferentzia baita, %5,1ean kokatu zen, aurreko hiruhilekoan lortu zen emaitza bi puntu luzetan gaindituz, goranzko norabide garbi bat erakutsiz.

BPGaren hazkunde garrantzitsuarekin batera, enplegua %1,0 hazi zen laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko datua puntu erdi bat hobetuz. Horri esker, 2014ko batez


besteko balantzea %0,3an kokatzen da. Hazkunde hori apala da, baina enpleguan bost urtez jarraian pilatu diren etengabeko jaitsierei amaiera emateko balio izan du.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza

Sortutako enplegu ia guztiak zerbitzuetan gauzatu ziren. Zehazkiago adierazita, zerbitzuetako lanpostuen urte arteko gehikuntza tasa %1,9 izan zen, hirugarren hiruhilekoan lortutakoa sei hamarrenetan gaituz. Lehen arloak ere hazkunde aipagarria eskuratu zuen (%1,3), baina bere tamaina txikiak enplegu sorreran izan dezakeen eragina mugatzen du. Aitzitik, industriari eta eraikuntzak ezin izan zuten oraindik garatu enplegu garbia sortzeko dinamika bat.

Kontu ekonomikoek laugarren hiruhilekoko enpleguaz eskaini duten informazioa osatzeko, Gizarte Segurantzak dagoeneko 2015eko urtarrilerako eta otsailerako argitaratu dituen afiliazioaren datuak daude. Administrazioaren erregistro horren arabera, aurtan enpleguaren gorakada areagotzen ari da. Hain zuzen ere, ezagutu den azken datuak %1,6an kokatu du afiliazioaren urte arteko aldakuntza tasa, laugarren hiruhilekoan lortutako batez bestekoa baino puntu erdi bat gorago. Lehenago ere gertatu zenez, afiliazioaren gehikuntza ia osoa zerbitzuetan gauzatu da. Sektore horretako jardueren artean, finantza arloan bakarrik jaitsi da pertsona afiliatuen kopurua, baina otsaileko urte arteko jaitsiera (%-1,7) aurreko hilekoetako baino nabarmen txikiagoa da. Azpimarratzekoak dira aisialdirako jardueren (%5,9) eta administrazio jardueren eta zerbitzu laguntzaileen (%5,1) gehikuntzen bizitasuna. Halaber, oso

esanguratsua da merkataritzaren (%1,7) hazkunde tasa, zerbitzuetako adarrik handiena delako eta aurreko hilekoetako tasak gaintu dituelako. Orobat, arlo publikoaren partaidetza dituzten jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna) aurreko urtekoak baino hazkunde tasa nabarmen handiagoak lortu zituzten.

Laugarren hiruhilekoan BPGak (%1,9) eta enpleguak (%1,0) izan zuten gehikuntzak bide eman zion produktibitateari ia %1,0 handitzeko. Tasa hori oso hurbil dago aurreko lau hiruhilekoetan lortutako balioetatik eta bat dator 1995etik batez beste eskuratu den %1,1 harekin. Ohikoa denez, eraginkortasunean izan diren aurrerakada handienak lehen arloan (%3,2) eta industrian (%3,0) lortu ziren. Zerbitzuek, berriz, %0,7ko hobekuntza eskuratu zuten, arlo horren erreferentzia historikotik (%0,6) oso hurbil dagoen tasa bat delarik. Azkenik, eraikuntzak berriro galdu zuen produktibitatea, oraingoan %1,7, 2012an eta 2013an lortu zituen irabazi handietatik guztiz aldentuta.

Barne eta kanpo eskaria

EAEko barne produktu gordinaren osieran, eskariaren ikuspegitik aztertuta, barneko osagaia gero eta pisu handiagoa hartzen ari da eta, aitzitik, kanpo saldoak bere ekarpena murriztu du hiruhilekoak aurrera igaro ahala. Zehaztasun gehiagoz azalduta, barne eskaria %2,0 hazi zen erreferentziako hiruhilekoan, aurreko epealdian baino lau hamarren gehiago. Kanpo saldoak, berriz, lau hamarren ekarri zizkion hazkundeari 2014. urteko hasieran, baina harez geroztik esportazioen eta inportazioen gehikuntzak berdindu ziren eta osagai horrek portaera neutroagoa bereganatu zuen. Esportazioen bizitasuna oso nabarmena da; espainiar ekonomiaren eta beste merkatu batzuen susperraldiak, gehi europar dibisak ezagutu duen balio galerak, EAEko produktuen salmenta kanpoan erraztu du. Hala ere, esportazioen bultzada sendo hori konpentsatuta geratu da barne eskariaren gehikuntzak inportazioen alorrean egiten duen eraginarekin.

Barne eskarian gehien hazi zen osagaia, hala laugarren hiruhilekoan nola aurrekoetan, azken kontsumoa izan zen. Agregatu makroekonomiko horrek suspertzeko joera azkarra erakutsi zuen urtean zehar eta horren ondorioz 2014ko lehen hiruhilekoan %0,3 haztetik urte amaierako %2,4ra igaro zen, urte arteko tasan neurtuta. Bilakaera horren arrazoia familien kontsumoarekiko portaeran datza. Izan ere, hiru urtez jarraian gastuak murriztu eta gero, 2014an EAEko familiek kontsumoa emeki-emeki handitzea erabaki zuten, urte amaieran, urte arteko aldakuntza tasa %2,6an kokatu arte. Aldaketa hori eragin zuten zioen artean honako hauek aipatu behar dira: etorkizunarekiko igurikimene hobekuntza, enpleguaren hazkundera,

gero eta gehiago sortzen ari baita, kontsumoko prezio apalak, soldata errealen gehikuntza txikia, finantza aberastasunaren hobekuntza, kreditu bat lortzea errazagoa izatea eta denbora luzez geroratuak izan ziren erosketa batzuk egiteko beharra.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2013		2014			
			IV	I	II	III	IV	
BPG erreala	-1,7	1,2	-0,5	0,5	0,9	1,4	1,9	
Gastua azken kontsumoan	-1,1	1,4	-0,6	0,3	1,2	1,7	2,4	
- Familien gastua kontsumoan	-1,0	1,6	0,1	0,2	1,4	2,2	2,6	
- Adminis. gastua kontsumoan	-1,4	0,9	-3,0	1,0	0,8	-0,1	1,8	
Kapital eraketa gordina	-4,6	0,0	-1,0	-0,9	0,0	0,2	0,6	
- Ekipamendu ondasunak	-3,1	2,2	-0,9	0,4	1,5	2,9	4,0	
- Gainontzeko inbertsioa	-5,3	-1,0	-1,1	-1,5	-0,6	-1,0	-0,7	
Barne eskaria	-1,9	1,1	-0,6	0,1	1,0	1,4	2,0	
Esportazioak	0,9	3,4	3,4	3,3	2,1	3,6	4,7	
Inportazioak	0,4	3,2	3,0	2,6	2,1	3,4	4,7	

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren beste osagai handiak ere, hots, kapital eraketa gordinak, bilakaera positiboa erakutsi zuen, baina azken kontsumoaren bizitasunera iritsi gabe. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan oraindik aldakuntza tasa negatiboak jaso baziren ere, bigarreanean amaiera eman zitzaion sei urte luzez iraun zuen etengabeko narriadurari, eta azken hiruhilekoetan hazkunde leuna ere eskuratu zen. Izan ere, 2014ko laugarren hiruhilekoan, inbertsioa %0,6 areagotu zen aurreko urteko epealdi beraren aldean. Hobekuntza, bereziki, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren eskutik heldu zen, oso irudi dinamikoa eskaini zuelako urte osoan zehar, azken laurdenean %4,0ko balioa jaso arte. Aitzitik, inbertsioaren beste atalak, non eraikuntzan eginiko inbertsioak paper garrantzitsua jokatzen baitu, oraindik urte arteko jaitsierak izan zituen, nahiz eta aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren.

Ekipamendurako ondasunetan egiten den inbertsioaz dauden koiunturako adierazleek ez dute ikuspegi garbi bat ematen epe laburreko etorkizunaz. Alde batetik, mota horretako ekoizpenak joera hautematea zailtzen duten gorabehera handiak izaten ditu, baina serie horren analisiak seinalatzen du hazkunde erritmoa leuntzen ari dela. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioak bizitasun handia erakutsi zuen 2014ko azken hilekoetan, urte arteko aldakuntza

tasa %11,1ean kokatu zelarik, aurreko datuak nabarmen gaindituz. Industria alorreko ibilgailuen matrikulazioak ere oso bilakaera ona izan du eta azken hilekoetan, baita 2015eko lehen bi hilekoetan ere, urte arteko gehikuntza tasa oso handiak jaso ditu.

Kanpo eskariak, berriz, azken aldian bizitasun ukaezina lortu badu ere, ez zion inolako ekarpenik eman EAEko barne produktu gordinaren hazkundeari eta, are gehiago, hamarren bat inguru kendu zion 2014ko laugarren hiruhilekoan. Zentzu horretan, EAEko ekonomiaren oraingo hazkunde eredia barne eskarian oinarrituta dagoela baieztatuta geratu da, bost urtez jarraian jardueraren bultzagile nagusia kanpo arloa izan ondoren. EAEko BPGaren hazkunde erritmoak beraren bezero behinenena berdindu zuenean, esportazioen eta inportazioen gehikuntza tasen artean nolabaiteko oreka gertatu zen, kanpo saldoaren ekarpena murriztu zuena. Zehazkiago adierazita, hala esportazioak nola inportazioak %4,7 hazi ziren laugarren hiruhilekoan, termino errealetan, azken urteetako baliorik altuenetako bat delarik. Termino nominaletan, hazkundeak %3,9 eta %4,8 izan ziren, hurrenez hurren. Horrek agerian uzten du kanpoan saltzeko prezioak jaitsi zirela aurreko urtean zeudenekin alderatuta, eta erostekoek ia ez zutela inolako aldaketarik izan.

Atzerrian erositako eta saldutako ondasunen merkataritzari dagokionez, 2014ko bigarren erdiak oso datu bikainak utzi zituen esportazioen alorrean, hirugarren hiruhilekoan %11,2 hazi zirelako eta laugarrenean, berriz, %18,0. Beste hiruhileko batez, energia alorreko produktuek oso protagonismo azpimarragarria izan zuten bilakaera horretan, atzerrian saldutakoa bikoiztu zutelako, 2013ko amaieran lortu ziren 303 milioi euroetatik 2014ko laugarren hiruhilekoko 670 milioi euroetara igarota. Baina esportazioen bultzada ez zen atal horretara mugatu eta energiakoak ez diren ekoizkinen multzoak ere aurreko emaitzak hobetu zituen eta laugarren hiruhilekoan %11,3 gehiago saldu zuen atzerrian. Tamaina horretako urte arteko bat aurkitzeko 2011. urtera jo behar da.

Bilakaera horren ondorioz, 2014. urte osoan 22.244 milioi euro balio zuten ondasunak saldu ziren atzerrian, gaur arte inoiz lortu den zenbakirik gorena baita. Aurreko urtearekin alderatuta, %9,9 gehitu dira esportazioak. Tasa hori, berez, garrantzitsua da, baina are esanguratsuagoa da kontuan hartzen bada munduko merkataritza 2014an %2,5aren inguruan hazi zela ezagutu diren hiruhilekoetan.

EAEtik esportatzen diren produktuen hiru talde nagusiek gehikuntza tasa handiak lortu zituzten 2014ko laugarren hiruhilekoan. Esate baterako, garraio materialaren salmentak %28,4 areagotu ziren, atal horretako adar guztien ekarpenei esker. Bereziki, trenbideei lotutako ekoizkinen bultzada nabarmendu behar da, %152,2 areagotu zirelako. Automobilien salmenta ere nabarmen handitu zen (%11,2), eta horixe da talde horretan pisu gehien duen adarra. Apur bat

gutxiago, baina oraindik emaitza ona eskuratuta, metal arruntak eta beraren manufakturrak biltzen dituen taldeak %8,9 gehiago saldu zuen eta makinak eta tresnak barne hartzen dituenak %4,7 gehiago, urte osoan tasarik altuena lortuz. Panorama on horretan, kautxua eta plastikoaren taldeak bakarrik izan zuen aldakuntza negatibo bat (%-4,9).

Hala ELGEko herrialdeek nola ekonomia eremu horretakoak ez direnek protagonismoa irabazi zuten EAEko produktuen helburu gisa. Izan ere, ELGEra zuzendutako salmentak %9,4 areagotu ziren 2014. urte osoan, baina %14,5 laugarren hiruhilekoan, goranzko perfil leun batean. Era berean, garapen bidean dauden herrialdeei bidalitako esportazioak %11,7 hazi ziren urteko batez bestekoan eta %26,5, berriz, iazko azken hiruhilekoan. Eremu bateko eta besteko hazkunde erritmoan hautematen den diferentzialaren zati handi bat erregai mineralen salmentarekin dauka lotura, bi eremuetan oso modu esanguratsuan hazi ziren arren. Hain zuzen ere, produktu horien esportazioa herrialde garatuetara bikoiztu egin zen laugarren hiruhilekoan (%100,1), baina garatzen ari diren herrialdeetan hazkunde hori lau aldiz biderkatu zen (%455,8). Hala ere, kontuan hartu behar da erregai mineralak garapen bidean dauden herrialdeetan saltzen den guztiaren %7,1 baino ez direla, eta pisu handiagoa dutela herrialde garatuetan (%12,8).

Ohikoa denez, herrialde garatuetara esportatutakoaren zati handiena Europar Batasuneko herrialdeetara bideratu ziren, atzerrian saldutako gutzitza %62,5 bereganatu zutelako. Helburuen artean, Frantzia eta Alemania azpimarratu behar dira, nahiz eta merkatu batean eta bestean lortutako emaitzak oso ezberdinak izan ziren. Alde batetik, Frantzia saldutakoa nabarmen gehitu zen (%9,4) 2014ko laugarren hiruhilekoan, erregai mineralen esportazioa herrialde horretara bizkor igo zelako (%120,9), salmenten beste zutabea, ibilgailu automobilena, zertxobait (%-2,1) gutxitu zen bitartean. Beste aldetik, Alemaniak %1,7 gutxitu zituen EAEko produktuen erosketak. Kasu horretan, ibilgailu automobilaren salmentak, Alemaniara esportatzen den guztiaren ia erdia biltzen baitu, emaitza ona lortu zuen, baina makinerian jasotako jaitsierak konpentsatu zuen hobekuntza hori.

Oro har, Erresuma Batuan eta Italian saldutakoak ere oso bilakaera ona izan zuen, hurrenez hurren %18,3 eta %36,2 gehitu zelako; lehen kasuan automobilaren salmentari esker eta bigarrenetan makineriarenari esker. Orobat, AEBetara esportatutakoaren bultzada ere azpimarratu behar da, laugarren hiruhilekoan %45,4 areagotu zelako, erregai mineralek izan zuten gorakada biziak baldintzatuta, nahiz eta metalak eta beren manufakturrak, eta material elektrikoak ere gehikuntza garrantzitsuak eskuratu zituzten.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-1,6	9,9	12,4	-0,6	11,2	18,0	5.866.618
ELGE	-1,0	9,4	10,9	-1,8	14,5	15,6	4.467.680
Europar Batasuna	-3,6	12,9	14,0	3,6	15,0	19,9	3.668.110
Frantzia	-7,2	0,8	-2,6	-7,8	5,7	9,4	888.795
Alemania	-0,4	7,0	12,0	-1,6	21,6	-1,7	743.865
Erresuma Batua	-13,8	11,2	15,3	11,1	0,8	18,3	350.991
Italia	-3,7	9,9	-9,2	4,9	10,4	36,2	299.696
AEB	12,4	18,9	9,4	19,3	4,8	45,4	465.616
ELGETik kanpokoak	-3,8	11,7	17,6	3,8	0,4	26,5	1.398.938

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Oro har, EAEko enpresek garapen bidean dauden herrialdeetara %26,5 gehiago saldu zuten arren, eremu horretako herrialde handiek gutxiago erosi zuten EAEn. Esate baterako, Txinan %2,3 gutxiago saldu zen, aurreko hiruhilekoetako gehikuntza biziaren ondoren. Orobat, bai Brasilek (%-24,9) bai Errusiak (%-11,2) askoz ere EAEko produktu gutxiago inportatu zuten. Eremu horretako ekonomia handien artean, India izan zen salbuespena, beraren erosketak %66,5 areagotu zirelako. Europako ekialdeko herrialde batzuk ere aipatu behar dira, hala nola Errumania, EAEn eginiko erosketak lau aldiz handitu zituelako (%439,4), trenbideetako ibilgailuek protagonismo handia izan zutelarik. Herrialde arabiarrek, esate baterako Aljeria (%21,8), Arabia Saudi (%69,3) eta Maroko (%33,1), gero eta helburu garrantzitsuagoak dira EAEko produktuentzat.

Inportazioei dagokienez, iazko azken laurdena nolabaiteko etena izan zen aurreko hiru hiruhilekoetan lortutako gehikuntza biziaren, eta atzerrian erositakoaren balioa zertxobait gutxitu zen (%.0,5). Alde batetik, energia alorreko produktuen inportazioak indartsu (%8,3) hazi ziren, baina, beste aldetik, gainontzeko ekoizkinek urte arteko jaitsiera bat (%-4,5) ezagutu zuten. Hala eta guztiz ere, jaitsiera horren azpian dagoena hauxe da: 2013an, produktu kimikoen atalean, gehikuntza atipiko bat gertatu zen, 2014an berriro jazo ez zena. Horren ondorioz, atal horrek erdira jaitsi zituen bere erosketak (%-51,9), inportazio guztien emaitza baldintzatuz.

Aurreko hiruhilekoan gertatu zen bezala, Erresuma Batua izan zen EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia, baina merkatu horretan egiten diren erosketak ia guztiak erregai mineralak dira. Atal horretan, hornitzaileen berregituraketa geografiko bat hauteman da eta horrek oso aldakuntza handiak eragiten ditu herrialde bakoitzarekin dauden harremanetan. Prozesu horretan, laugarren hiruhilekoan, energia alorreko produktuak Erresuma Batuan, Angolan, Venezuelan, Norvegian eta Nigerian erostea erabaki zen eta, aitzitik, AEBetan, Mexikon, Errusian eta Kolonbian askoz gutxiago erosi da. AEBetako kasua bereziki esanguratsua da, zeren eta herrialde horretan erositako erregai mineralen erosketak 303 milioi eurora iritsi ziren hirugarren hiruhilekoan, baina ez zen ezer erosi laugarrenean.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	0,9	9,9	10,8	10,2	20,1	-0,5	4.234.698
ELGE	-0,5	15,0	31,9	-1,2	33,4	1,3	3.026.637
Europar Batasuna	-2,8	30,3	38,4	13,5	63,8	14,3	2.576.077
Frantzia	-1,4	-0,7	4,6	-3,8	-3,2	-0,1	420.062
Alemania	-6,2	5,9	8,3	-2,9	5,1	13,4	557.397
Erresuma Batua	-5,2	180,0	3,6	59,9	418,7	283,9	575.875
Italia	-16,1	2,9	0,5	10,8	2,7	-2,4	203.099
AEB	40,8	-52,3	96,1	-51,4	-60,1	-80,1	75.280
ELGETik kanpokoak	3,3	0,9	-17,8	29,8	-1,2	-4,7	1.208.061

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Laugarren hiruhilekorako jaso diren esportazioen eta inportazioen datuek 1.632 milioi euroko superabita eskaini dute guztira, serie historiko osoan aurkitu daitekeen handienetako bat. Saldo horretan, energiaren bestelako superabita, 2.412 milioi eurokoa, eta energia alorreko defizita, 815 milioi eurokoa, daude. Halaber, azpimarratzekoak dira 2014. urte osoan lortutako saldoak. Izan ere, urteko saldoaren guztizkoa 4.896 milioi eurora iritsi zen, serie historiko osoan dagoen handiena. Kasu horretan, energiaren bestelako superabita 8.700 milioi euroko kopuru harrigarria iritsi zen eta energiaren defizita, berriz, 3.929 milioi eurokoa izan zen.

Prezioak

2014ko amaieran prezioen aldakuntza tasa oso txikia zen, baita negatiboa ere KPI eta IPRI indizeetan. BPGaren deflatoreak, ordea, %0,1ean bukatu zuen 2014ko laugarren hiruhilekoa, aurreko hiruhilekoan izan zuen emaitza bera delarik. Hala eta guztiz ere, deflatorearen hiru osagaietatik biren bilakaera azpimarratu behar da. Izan ere, kontsumo pribatuaren deflatoreak tasa positiboak berreskuratu zituen (hirugarren hiruhilekoan markatu zuen %-0,1etik laugarreneko %1,0ra igo da), agregatu horren goranzko bultzadaren ondorioz. Beste aldetik, kapital eraketa gordinaren deflatoreak tasa negatibotan jarraitu zuen, baina azken hiruhilekoetako baliorik altuenetako bat (%-0,2) erakutsi zuen.

KPIaren bilakaerari dagokionez, adierazle horrek jaitsiera bizkortu zuen eta urte amaieran, historian lehen aldiz, tasa negatibo bat jaso zuen (abenduan %-0,7). Urte arteko beherakada hori areagotu zen 2015eko hasieran, urtarrilean %-1,0an kokatu arte, nazioarteko merkatuetan petrolioak izan zuen bilakaerak baldintzatuta. Orobat, 2014ko batez besteko inflazio tasak ere EAEko kontsumoko prezioen datuak argitaratzen hasi zirenetik inoizko baliorik txikiena jaso zuen (%0,2).

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2013	2014	2014		2015	Ekarpena
			III	IV	Urtarrila	
Inflazio osoa (%100)	1,6	0,2	-0,1	-0,2	-1,0	-1,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,6	0,3	0,1	0,2	0,3	0,2
- Elikagai landuak (%14,1)	3,1	0,0	-0,4	-0,1	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%26,2)	0,5	0,1	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1
- Zerbitzuak (%41,5)	1,8	0,6	0,5	0,6	0,7	0,3
Hondar inflazioa (%18,2)	1,4	-0,6	-1,2	-1,8	-6,9	-1,2
- Landu gabe elikagaiak (%7,0)	3,7	-1,2	-4,1	0,8	-1,3	-0,1
- Energia (%11,2)	0,0	-0,1	0,6	-3,4	-10,3	-1,1

Iturria: INE.

2014ko erdialdetik, petrolioaren salneurriek beheranzko joera hartu dute, baina badirudi joera hori bertan behera geratu dela 2015eko otsailean. Hain zuzen ere, 2014ko ekainean lehengai horren upelaren prezioak 112 dolarreko langa gairitu zuen eta pausoz pauso merkatuz joan

zen 2015eko urtarrilean 47,8 dolarretara iritsi arte, baina otsailean 60 dolarren inguruetara igo zen berriro. Petrolioaren merkatze bizia azaltzen duten arrazoiak askotarikoak dira, baina oro har eskaintzaren gehikuntza handi batekin lotzen da, eskaria apaleko testuinguru batean. AEBetan eta beste herrialde batzuetan erabiltzen ari diren erauzteko teknika berriek eta merkatu kuota handitzeko herrialde ekoizle batzuek garatu duten estrategiek eragin dute petrolio gordinaren merkatze hori.

Inflazioaren beherakada biziagoa izan da EAEn Eurogunean baino. Horren ondorioz, bi lurralde horien arteko aldea oraindik EAEn aldekoa da. Zehatz-mehatz adierazita, EAEko KPIaren urte arteko tasa urtarrilean %-1,0an kokatu zen bitartean, Euroguneako emaitza %-0,6 izan zen. Lau hamarreneko tarte hori eta aurreko bi hilekoetan jasotakoak oso antzekoak dira. Kontuan hartu behar da petrolioaren kostuaren aldakuntzek eragin handiagoa izaten dutela EAEko indizean Euroguneakoan baino, hala merkatzen direnean nola garestitzen direnean. Dena dela, bata zein bestea oso urrun daude EBZk ezarri zuen %2,0aren erreferentziatik.

Indize orokorra ez bezala, azpiko inflazioak hazkunde tasa positiboak jaso zituen, goranzko joera leun bat marrazten zuela. Hain zuzen ere, inflazioaren guneko egonkorrenak ia ez zuten aldakuntzarik izan, eta hirugarren hiruhilekoak %0,1etik laugarreneko %0,2ra igo zen, 2015eko urtarrilean %0,3an kokatzeko, urte arteko tasan. Azpiko inflazioaren hiru osagai handienek lagundu zuten bilakaera horretan. Izan ere, landutako elikagaien taldea zertxobait (%0,1) garestitu zen eta zerbitzuak biltzen dituenak %0,7ko balioa jaso zuen. Azkenik, industria alorreko ondasunen aldakuntza tasak beherantz egin zuen berriro (%-0,2), aurreko hilekoetako datuak berdinduz.

Aitzitik, hondar inflazioak jaitsiera bizkortu zuen eta aurreko urteko urtarrilarekin alderatuta indize horren aldakuntza tasa %-10,3 izan zen, energiaren salneurrien merkatzeak bultzatuta, bereziki gorago aipatu den petrolioaren prezio jaitsieraren ondorioz. Arrazoi nagusia hori izan bazen ere, hondar inflazioaren beste osagaia ere agregatuaren bilakaeraren erantzulea da. Izan ere, landu gabeko elikagaien salneurriak %1,3 jaitsi ziren 2015eko urtarrilean, urte arteko tasan.

KPIaren analisia taldeka egiten denean, baieztatuta geratzen da gero eta gehiago direla aldakuntza tasa negatiboak jasotzen dituztenak, eta beraien artean petrolioarekiko menpetasun handiena duena, hots, garraioarena, gehien merkatu dena dela. Talde horrek oso nabarmen nozitu zuen petrolioaren upelaren bilakaera eta beherakada handiena izan zuen (%-7,0 urtarrilean). Aurreko hilekoetan bezala, komunikazioek ere oso jaitsiera handiak ezagutu zituen, arlo horretan telefonia zerbitzuen arteko lehia biziak eta teknologiaren aurrerapenek prezioak etengabe merkatzen dituztelako. Aitzitik, hezkuntzaren taldea nabarmendu da, EBZk

inflaziorako ezarri zuen helburua baino gehiago garestitu delako, unibertsitateetako tasen igoeraren ondorioz. Hala ere, adierazi behar da tasa horiek administrazioak berak erabakitzen dituela, merkatutik kanpo.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	Urtarrila
Indize orokorra	1,6	0,2	0,4	0,5	-0,1	-0,2	-1,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	-0,6	0,6	-1,3	-1,9	0,2	-0,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,0	1,0	2,1	1,7	0,1	-0,1	0,4
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,2	0,2	0,3	-0,1	0,3	0,0
Etxebizitza	1,1	2,0	1,7	3,0	2,0	1,1	-0,1
Etxeko hornidura	2,0	-0,4	-0,4	-0,8	-0,1	-0,2	0,2
Medikuntza	7,5	4,3	8,2	8,2	0,6	0,0	-0,2
Garraioa	0,3	-0,5	-0,9	1,1	0,1	-2,1	-7,0
Komunikazioak	-4,3	-6,1	-6,8	-5,8	-5,9	-5,7	-4,6
Aisia eta kultura	1,6	-1,2	-1,0	-0,7	-1,8	-1,3	-0,2
Irakaskuntza	3,0	2,7	2,8	2,7	2,6	2,8	2,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,1	0,7	0,6	0,9	0,7	0,4	0,2
Besteak	2,1	1,2	0,7	1,2	1,5	1,4	1,7

Iturria: INE.

IPRIk ere beherantz egin zuen, petrolio gordinaren salneurriek oso baldintzatuta dagoelako. 2014an, indize orokorraren urte osoko batez besteko tasa %-1,1ean kokatu zen, 2013ko emaitza baino bost hamarren beherago. Industriaren prezio horiek maila txikietan egonkortu ziren 2014an zehar, eskariaren ahultasunaren ondorioz eta energiaren prezioen bilakaera motelarengatik. Hain zuzen ere, azken horiek beherakada nabarmena eta indize orokorrarena baino biziagoa pairatu zuten. IPRIa osatzen duten gainontzeko osagaiek ere bilakaera neurritsua erakutsi zuten, eta baita aldakuntza negatiboak ere kontsumoko eta ekipamendurako ondasunetan iazko azken hilekoetan.

Azkenik, hitzarmen kolektiboek dagokienez, soldatetarako adostu den igoera gero eta txikiagoa da, eta 2014an zehar sinatutako hitzarmenek %0,5eko igoera izan zuten, aurreko ekitaldian sinatutakoetan hazkundera %0,7 izan zen bitartean. Hala ere, adierazi behar da EAEko langile

askok luzatuta eta berritu gabe dituztela beren lan hitzarmenak. Moteltzeko joera hori 2015eko datuetan ere hautematen da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	3,6	2,7	1,3	0,7	0,5
- Urtean zehar sinatutakoak	3,4	2,0	1,1	0,5	0,2
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	3,8	2,7	1,3	0,8	0,5
- Enpresako hitzarmenak	3,1	2,6	1,2	0,6	0,6

(*) 2015ko urtarrila arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

2015eko lehen hilekoetan argitaratu diren aurreikuspenek adierazten dute munduko ekonomia sendotuko dela datozen hiruhilekoetan. Consensus Forecasts-en arabera, mundua %2,8aren inguruan haziko da aurreko eta %3,2, berriz, 2016an. Hazkunde hori batez bestekoaren emaitza da eta epe laburrean susperraldi etengabea baina leuna gauzatuko dela iradokitzen du. Testuinguru horretan, ekonomia garatuak beren hazkunde potentzialera hurbilduko dira eta azaleratzen ari diren ekonomiak gero eta gehiago haziko dira, baina beraien hazkunde tasak 2009an baino lehen izan zituztenetatik oso urrun egongo dira.

Beheranzko arriskuak goranzkoak baino handiagoak dira oraindik. Hala ere, arrisku horien konposaketa aldatu da azken hilekoetan. Gaur eguneko kezka nagusia tentsio geopolitikoetan datza. Alde batetik, Ukrainiaren eta Errusiaren artean dagoen krisiak Eurogunearen susperraldia kaltetu dezake eta, horren ondorioz, munduko ekonomiarena. Alemania oso estu dago lotuta Errusiara, merkataritzako eta inbertsioko harremanen bitartez. Are gehiago, Mendebaleko Europak, oro har, errusiar energiaren iturrien menpe dago, neurri handi batean. Aldi berean, Estatu Islamikoak sortu duen egoera larriak Ekialde Ertainaren eremu osoa ezegonkortu dezake. Horrek guztiak petrolioaren salneurrietan izan ditzakeen eraginak munduko ekonomiaren hazkundera kaltetu dezake.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Munduko ekonomia	2,7	2,8	3,2	3,1	2,4	3,1
AEB	2,4	3,2	2,9	1,6	0,3	2,2
Kanada	2,4	2,1	2,1	1,9	0,8	2,1
Japonia	0,2	1,3	1,6	2,7	0,9	1,2
Eurogunea	0,8	1,2	1,6	0,4	-0,1	1,1
Europar Batasuna	1,3	1,6	1,9	0,6	0,3	1,4
Alemania	1,5	1,5	1,9	0,9	0,3	1,6
Espainia	1,4	2,2	2,2	-0,2	-0,9	1,1
Frantzia	0,4	0,9	1,4	0,5	0,1	1,1
Herbehereak	0,7	1,4	1,5	1,0	0,8	1,3
Italia	-0,4	0,5	1,1	0,2	-0,1	0,8
Erresuma Batua	2,6	2,7	2,5	1,5	0,6	1,7
Asia eta Ozeano Barea	4,5	4,7	4,8	2,7	2,0	2,4
Ekialdeko Europa	1,5	-0,2	2,1	7,4	7,1	5,3
Amerika Latinoa	0,9	1,3	2,7	11,4	12,3	10,6

Iturria: Consensus Forecast (2015eko otsaila).

Beste aldetik, Euroguneko deflazioa ere arrisku garrantzitsua da, baina aurreikusten denaren arabera, ekonomiaren hazkunde erritmoa motela izan arren, epe laburrean energiako prezioen bilakaerak, soldaten hazkunde neurritsuak eta euroaren balio galeraren ondorioz inportazioko prezioek izango duten gehikuntzak prezioen batez besteko maila goraraziko dute. Nazioarteko ekonomia testuinguruan hautematen den epe laburreko beste ziurgabetasun bat azaleratzen ari diren ekonomia batzuen bat-bateko lurreratzea da. Herrialde horien artean, Txina da adibide garbiena.

Oinarrizko eszenategi batean, estatubatuar ekonomiak iazkoa baino bizitasun handiagoa erakutsiko du eta bertako hazkunde tasa %3,2ra iritsiko da 2015ean. Aurten, ekonomiaren susperraldia finkatuko da eta gehikuntza ekonomiko garrantzitsua espero da, azken 30 urteetan izan duen joerara hurbilduko dena. Ekonomiaren aurrerakada arlo pribatuan eta publikoan gauzatuko da. Enpleguari buruzko aurreikuspenek iradokitzen dute sektore gehienetan sortuko dela. Horretaz gain, baikortasuneko giroak familien diru sarrerak igoraraziko ditu eta horrek kontsumoari bultzada bat emango dio. Inbertsioak ere gora egingo du datozen hilekoetan, ekipamendurako ondasuneko eta jabego intelektualeko azpiataletan bizitasun handia lortuko

delarik. AEBetako ekonomiarentzat aipatzen diren arrisku behinenak kanpotik helduko zaizkio eta beraiek merkataritza bazkideen merkatuetan egingo dituzten salmentetan izan ditzaketen eraginetik. Consensus Forecasts-ek moteltze arina aurreikusten du 2016an eta hazkunde tasa %2,9an kokatuko da urteko batez bestekoan.

Euroguneko ekonomiak suspertzeko norabideari eutsiko dio datozen urteetan ere. Izan ere, 2015ean, Europako diru batasuna osatzen duten herrialde guztiek hazkunde tasa positiboak lortuko dituztela espero da. Datorren urterako aurreikuspenek hazkunde erritmoa biziagotuko dela iragartzen dute. Hala ere, oraindik deflazioaren arriskua dago eta gaur eguneko hazkunde potentzial apala kontuan hartuta, epe luzerako geldialdiaren arriskua gertagarria izan daiteke. Consensus Forecasts-ek espero du diru batasuneko ekonomia aurten %1,2 haztea eta hazkunde tasa lau hamarren gehiago bakarrik bizkortuko dela datorren urtean, %1,6an kokatu arte. Lan merkatuaren egoera hobek, familien errenta erabilgarria handitu izanak eta finantza arloaren onbideratzeak lagunduko dute bizkortze neurritsu hori lortzen. Epe ertainean, munduko gainontzeko eremuen hazkudearen sendotasunak ere Eurogunearen garapen iraunkorra lagunduko du.

Espanian, Consensus Forecasts-ek %2,2ko hazkunde tasa aurreikusten du bai 2015erako bai 2016rako. Enpleguaren gorakadak, ekonomia eragileen igurikimen baikorragoek eta finantza merkatuetako baldintza hobek lagunduko dute iragarri duten hazkunde tasa hori. Ekonomiaren hazkundera, urte horietan, bultzatuko duen motor behinena barne eskaria izango da. Izan ere, familiek, urratsez urrats, oraingo zuhurtzia alboratuko dute kontsumoko erabakiak hartzeko orduan. Enpresen inbertsioak gora egingo du, bereziki ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak. Beste aldetik, eraikuntza alorraren doikuntza prozesua inflexio gune batera iristen ari da eta hazkunde txikia espero da, batez ere egoitzen eraikuntzan. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasa datozen urteetan jaitsiko dela aurreikusten da. Hain zuzen ere, Funcasen aditu taldeak %22,8an kokatu du tasa hori 2015erako. Espainiako gobernuaren defizita ere murriztuko da kontuan hartu den epealdi honetan.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak eguneratu ditu 2015erako. BPGaren urteko gehikuntza tasa 2015erako gorantz berrikusi da lehenago kalkulatu ziren zenbakietatik. Izan ere, urte osoko aldakuntza tasa %2,3ra iritsiko da.

Barne eskariak suspertzeko norabideari eutsiko dio eta aurten hazkundera 2,2 puntuko ekarpena egingo diola aurreikusi da. Familien kontsumoak erritmo bizian egingo du gora kontuan hartu den epealdian. Enpleguaren sorrerak kontsumitzaileen igurikimenak hobetzen lagunduko du. Kontsumo pribatua bultzatuko duten beste faktore batzuk finantzaziorako baldintzak errazagoak izatea eta familien errenta erabilgarriaren igoera dira. Kapital eraketa

gordinari dagokionez, agregatu horrek hazkundera bizkortuko duela aurreikusten da. Eraikuntzak suspertzeko zantzuak eskainiko ditu eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak hazkunde erritmo sendoari atxikiko dio. Gorakada horren oinarrian, ekipamendua berritzeko beharra, enpresen balantze onbideratuak eta kreditua lortzeko erraztasun handiagoa daude. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa neurritz haziko da. Beraz, kontsumo publikoa %0,9aren inguruan haziko da eta osagai horrek ere lagunduko du ekonomia jarduera orokorraren portaera hobetzen.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2015eko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015				2015
	I	II	III	IV	
BPG	2,2	2,2	2,3	2,4	2,3
Azken kontsumoa	2,2	2,3	2,0	2,1	2,2
Kontsumo pribatua	2,6	2,6	2,4	2,4	2,5
Kontsumo publikoa	0,9	1,0	0,7	0,8	0,9
Kapital eraketa gordina	1,2	1,7	2,3	2,8	2,0
Barne eskariaren ekarpena	2,1	2,3	2,2	2,3	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	-0,1	0,1	0,1	0,1
Lehen arloa	8,7	8,6	4,1	-4,2	4,3
Industria eta energia	1,4	1,6	1,9	2,2	1,8
Eraikuntza	-1,3	-0,9	-0,4	0,0	-0,6
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,6	2,7	2,6
Balio erantsi gordina	2,2	2,3	2,4	2,5	2,4
ekoizkinen gaineko zergak	2,3	2,1	2,1	1,9	2,1
BPGaren deflatorea	0,1	0,3	0,4	0,5	0,3
Enplegua	1,5	1,5	1,6	1,6	1,6
Langabezia tasa	14,0	13,8	13,6	13,5	13,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kanpo eskariaren ekarpena hutsala izango da edo positiboa baina oso txikia (hamarren batekoa edo biko) aurreikusi den epealdi osoan. Europako eta Espainiako ekonomien susperraldiak eragin zuzena izango du esportazioetan, baina inportazioek ere gora egingo dute kontsumoaren eta ekipamendurako ondasunen inbertsioaren susperraldiaren ondorioz.

Eskaintzari dagokionez, arlo guztiek, lehenak izan ezik, jarduera erritmoa hobetuko dute 2015ean, urte arteko tasan. Industriak hazkunde jarraituko ibilbidea marraztuko du barneko susperraldiak eta EAEko industriaren produktuak saltzen diren merkatuen bizitasunak lagunduta. Bizkortzeko joera horrekin bat egingo dute zerbitzuek ere. Eraikuntzan, aurtengo amaieran jarduerak behera egiteari utziko diola espero da.

Enpleguari dagokionez, aurtengo batez besteko aldakuntza tasa %1,6ra iritsiko dela aurreikusten da. Beraz, 2014an hasi zen suspertzeko joera baieztatuta geratu da eszenategi makroekonomiko honetan.